

2019ari zeharka begira



Hustu ditzagun errepideak eta kartzelak.
Hustu ditzagun letraz eskutitzak.
Bete ditzagun etxeak eta mahaiak.
Bete ditzagun hitzez aurrez aurreko solasaldiak.

Sekula ez gara ohituko hutsuneekin bizitzen.
Etxerako ordua da.

Urte berri on eta besarkada bero bat gure irakurleei



2019ARI BEGIRATUA:

04 Xabier Izaga:

Euskal presoak, zantzu uzkurak

06 Amagoia Mujika:

Erraustegia, borroka orain hasten da

08 Maddi Txintxurreta:

Feminismo periferikoei begira

10 Ramon Sola:

Neofrankismoari stop hirutan

12 Amagoia Mujika:

Emakumea eta zaintzailea

14 Ibai Azparren:

Skolaeren errusiar mendia

18 Nerea Goti:

Pentsio duinen aldeko «jo eta ke»-a

20 Dabid Lazkanoiturburu:

G7: gailurra ala hondoa

22 Beñat Zaldua:

Marea biziak basamortuan

26 Ane Urkiri:

Emakume futbolarien hitzarmena

28 Iraia Oiarzabal:

Berri Txarrak sentimendu bat da

30 Ainara Lertxundi:

Errefuxiatuen drama, kronikoa



4



6



8



10



12



14



18



20



22



26



28



30

ZANTZU UZKURRAK

Euskal preso, erbesteratu eta deportatuen eskubideak asetzeko nahikoak ez diren mugimenduak izan dira

Baionan eta Bilbon Sarek deitutako bi manifestazio erraldoiek eman zioten hasiera euskal preso, erbesteratu eta deportatuen eskubideen aldeko mobilizazioei, indartsu eman ere. GARaren kontaketaren arabera, gutxienez 85.000 lagunek parte hartu zuten, bi hirietan iazko mobilizazioen kopurua nabarmen gaindituta. Zalantzarik gabe, jendetza horrek eta mobilizazioek nola Ipar hala Hego Euskal Herrian jasotako sostenguak gehiengo sozial eta politiko zabala islatzen dute. Euskal preso eta iheslari politikoen auzia behin betiko konponbidean jartzea euskal jendartearen aldarrikapen nagusietakoa dela esan daiteke.

Foro Sozialak “Aurrerapausoak, trabak eta atzerapausoak espetxe politikan” izeneko txostena argitaratu berri du, eta zenbait aurrerapauso uzkurrekin batera «iraganeko estrategiei dagozkien politikei» eutsi izana nabarmendu du. Halatsu erakusten dute Etxerat elkartearen urteko balantzearen datuek ere.

ISTRIPUAK, KARTZELATZEAK...

Aurten zortzi istripu jasan dituzte hamazazpi lagunek Estatu espainol zein Estatu frantseseko kartzeletan dauden euskal presoak bisitatzeagatik. Aspaldiko kontua eman balezake ere, euskal herritarren aurkako epaiketa politikoak ere ez dira amaitu. Irailean, 47 herritar epaitu zituzten presoei eta haien senideei laguntza mediko, juridiko eta humanitarioa emateagatik.

Atxiloketak ere izan dira. Otsailean, Galder Barbado eta Aitor Zelaia atxilotu eta kartzelatu zituzten, eta, maiatzean, Josu

 **POLITIKA** / Xabier Izaga Gonzalez

Amaitzean den urtean ez da euskal preso, erbesteratu eta deportatuen egoeran aldaketa nabarmenik izan. Aurrerapauso batzuk izan dira, esate baterako sailkapen graduen politikan, baina ia eragin praktikorik gabe eta, edonola ere, euskal jendartearen aldarrikapenak inondik inora asetzen ez dituztenak.

Urrutikoetxea, Estatu frantsesean, ospitalera zihoala. Jon Enparantza eta Arantza Zulueta ere kartzelatu zituzten, iraileko epaiketan jarritako zigorra betetzeko.

PRESO ERIAK

Jaiki Hadi elkarteak urtarrilean aurkeztu zuen kartzela eta osasunaren gaineko txostenaren arabera, gaixotasun larriak dituzten 21 presok aske egon behar lukete beren gaixotasunak direla-eta behar duten tratamendu zorrotza bermatzeko. Horiez gain, gai-

xotasun organikoak dituzten beste 54k eta gaixotasun psikikoak dituzten 14k kontrol eta jarraipen mediko zorrotza behar dute eta espetxeko bizi baldintzek ez dute horrelakorik bermatzen.

Gertakariak arrazoia eman diote Jaiki Hadiri. Hiru preso eri hil dira aurten: Juan Mari Maiezkuarena, bere gaixotasun terminala zela-eta 2017ko abuztutik etxean zegoena; Oier Gomez, 2017ko apiriletik kartzelatik kanpo, eta Jose Angel Ochoa de Eribe, kartzelan 19 urte eman ondoren hirugarren graduan sailkatu eta baldintzapeko askatasuna eskuratu eta hiru hilabete eskasera azken hatsa eman zuena.

Estatu frantsesean larri gaixorik dagoen Ibon Fernandez Iradi kartzelatik ateratzea ebatzi zuen estatu horretako Ezarpen Auzitegiak, baina bertan behera geratu zen ebazpen hori Fiskaltzak jarri zuen helegitea tarteko.

«Orain presoak» goiburuean, dozenaka mila lagun elkarretaratu zituen Sarek urtarriaren 11n Bilbon eta Baionan. Irudian, Bilboko manifestazioa. Luis JAUREGIALTZO | FOKU





Asier Aginakori, ordea, zigorra eten zioten urtarrilaren 31n bere gaixotasun larria dela eta. Arrazoi beragatik, presoaldi arindua eman zioten apirilean Aitzol Gorzari.

ENTREGATZEAK

Estatu frantsesak presoak entregatzen jarraitu du. Aurten, Mikel Albisu, David Pla, Joseba Seguro-la eta Marina Bernado entregatu ditu. Epaile espainolek aske utzi dituzte. Alberto Ilundain, maia-tzean entregatu eta kartzelatua, azaroan aske irten zen behin-behineko askatasunean. Beste lau lagun, berriz, kartzelan daude Estatu espainolera entregatu ondoren: Asier Bengoa, Asier Borrero, Jon Rubenach eta Marixol Iparragirre.

KALERA, EUSKAL HERRIRA

Urtean zehar 12 presok utzi dute atzean espetxeko atetzarra, zigor luzeak osorik bete ondoren: Julien Ibarrola, German Urizar de Paz, Kepa Etxeberria, Andoni Zengotitabengoa, Mikel Orbego-zo, Xabier Sagardoi, Ekaitz Ezker-ra, Iñaki Beaumont, Jose Javier Zabaleta, Xabier Ugarte, Zigor Merodio eta Jon Lopezek.

Beste lau behin-behineko askatasuna lortu dute: Maite Ara-

«Ni Zu Bi» gaixorik dauden presoak askatzeko herri ekimenak deitutako mobilizazioa Bilbon. Aritz LOIOLA | FOKU

nalde, Aitor Zelaia, Galder Barba-do eta Alberto Ilundainek. Zigor Garrok, berriz, baldintzapeko askatasuna eskuratu du Estatu frantsesean, 13 kartzela urte bete ondoren.

Bi erbesteratu eta hiru deportatu ere itzuli dira aurten Euskal Herrira: Inaxio Olaskoaga, Iñaki Orueta, Iñaki Etxarte, Koldo Zuri-mendi eta Alfonso Etxegarai.

DINAMIKA ZAHARRARI EUTSITA

“Hurbiltze” politika hasi zenetik, preso bakar bat ekarri dute Euskal Herrira, Iruñera, hain zuzen ere, kartzela zigor osoa betetzear zegoela gainera. Estatu espaino-lean hurbildu dituzten gainerako euskal presoetatik, sei baka-rrik eraman dituzte preso-a bisitatzeko 500 kilometro baino gutxiago egin behar den kartzela-letara.

Euskal preso, erbesteratu eta deportatu politikoen auzia behin betiko konponbidean jartzea euskal jendartearen aldarrikapen nagusietakoa dela esan daiteke

Aurten norabide zuzeneko zantzu batzuk eta borondate oneko hitzak ez dira falta izan, baina oraindik nagusi da beste garai bateko dinamika zaharra, atzean utzi beharrekoa

Estatu frantsesean, berriz, 36 presotik 25 Euskal Herritik gertuen dauden espetxeetan daude; beraz, hurbiltze prozesua aurreratuago dago. Hala ere, Estatu horren jarrerak ere zalantzarako tartea utzi du. Uztailean Estatu frantseseko Ezarpen Auzitegiak Xistor Aranbururen baldintzapeko askatasunerako eskaera onartu zuen arren, Fiskaltzak helegitea jarri eta urrian Auzitegiko apelazio aretoak atzera bota zuen aurreko erabakia; Haranburuk datorren apirilean 30 urte beteko ditu kartzelan, egoera berean dauden Jakes Esnal eta Jon Parotek bezala. Bestetik, nabarmendu beharra dago Euskal Herri-rik hurbilen dauden kartzelek emakumeak bertan egoteko baldintza egokirik ez dutenez, horiek oso urruneko kartzeletan daudela. Eta nabarmentzekoa da, halaber, euskal presoek kolektiboko hiru emakumetik bat beste euskal presorik ez dagoen kartzeletan daudela.

Bigarren graduan dauden presoek erdiak baino gehiago aurten aldatu dituzte graduz, baina 205etik 43 baino ez dira. Baldintzapeko askatasunari dagokionez, hain zuzen ere gradu politikak galarazten die Estatu espainolean zigorraren hiru laurdenak bete dituzten 58 euskal presori askatasuna berreskuratzea.

Esan bezala, errepaso arin honetan aurrerapausoren bat suma daiteke. Norabide zuzeneko zantzu batzuk eta borondate oneko hitzak ez dira falta izan, baina oraindik nagusi da beste garai bateko dinamika zaharra, atzean utzi beharrekoa. Badaude baldintza aproposak auziari behingoz heltzeko, inoiz justifikaziorik izan ez duten eta gaur egun aitzakiarik ere ez duten salbuespen neurriak amaitzeko eta herri honen nahi duen, behar duen behin betiko konponbideari eusteko.

Gipuzkoako Hondakinen 2019-2030 planari atea zabaldu zitzaion urtearen hasieran eta erraustegiari kea dariola amaitu da urtea. GuraSOSek garbi dauka: borroka inoiz baino beharrezkoagoa da.


Ketan ikusi dugu erraustegia. Zer mugitzen du horrek barruan?

Bi sentipen bereiziko nituzke, bata gaiaren gainean egon garena, eta, bestea, urrutixeago egon direnena. Guk beti ikusi dugu argazki hau, horregatik borrokatzen dugu erraustegiaren kontra. Baina egia da jende askorengan eragin handia izan duela kea ikusteak, akaso ez zuten espero horrelako tamainakoa, esaten genuena baino gutxi xeago zela sinistu nahi zuten.... Gizakiari berez ez zaio alarmista izatea gustatzen, nahiago du gauza txarrak hainbesterako izango ez direla sinistea. Jende gehienari ez zaio gustatzen errealitatea ezagutzea txarra denean. Hori da gure borroketako bat. Jendeak nahiago ditu gezur politikak egia gordinak baino.

Garrantzia sinbolikotik aparte, erraustegiaren kontrako borrokan zein esanahi dauka?

Oraindik ez da martxan jarri. Hiru fase daude eta erdikoan gaudela esan daiteke. Lehena, eraikitzea. Lanak oraindik ez dira bukatu, baina egina dagoela esan daiteke. Bigarren fasean gaude, martxan jarri aurreko probetan. Eta, azkena, benetan martxan jartzen denean.

Guk aurreikusten genuen eraiki egingo zela. Eraikita dago eta dagoeneko borroka ez da ez eraikitzea, baizik eta eraikitakoarekin zer egin era-



Juan Carlos RUIZ | FOKU

bakitzea. Hirugarren fasean borroka ondorengo izango da: martxan jartzen bada, zein baldintzetan.

Baina, orain, justu, tarteko fase batean gaude eta ez da martxan jarri. Gauza batzuk argitzeko daude. Batetik, erraustegiak daukan ingurumen baimena guretzat iraungita dago eta bertan behera utzi behar da. Hori auzibidean dago eta epaia otsail-martxo inguruan espero dugu. Bestetik, European ere salaketa bat jarri genuen eta ez da ebatzi. Normalean urtebetean erantzuten dira salaketa horiek eta ekainean bete zen urtea. Ez dute erantzun, baina ez dute epaia artxibatu. Ez dakigu zer erantzungo duten Europatik, baina bide hori irekita dago. Beraz, badaude bideak abiatuta, ez dira bukatu eta etorkizunean bide judizial gehiago abiatzeko asmoa daukagu.

Martxan jarrita ere, bada zer borrokatu beraz?

Bai, zalantzarik gabe. Erraustegiak zein baldintzetan funtzionatu duen zehazterakoan

JOSEBA BELAUSTEGI

GURASOS ELKARTEKO KIDEA

Zubietako erraustegia proba fasean dago eta kea dario tximiniatik. Irudiak daukan sinbolismo mingarriaren gainetik, GuraSOS elkarteak borrokan segitzeko arrazoiak baino ez ditu ikusten ke horretan.

Amagoia Mujika Telleria

«Orain hasten da benetako borroka, orain hasten baita benetako arriskua»

gauza asko daude esateko. Ez da gauza bera bost urtez edota hogeita hamabost urtez funtzionatzea. Toxina indartsuenak biometagarriak dira. Beraz, gero eta denbora luzeagoan funtzionatu, arriskua handitu egiten da.

Bestetik, ez da gauza bera kanpoko hondakinak erre edo ez. Sailkatu gabeko hondakinak kopurua aldatu egin da azken hamar urteotan, eta, proiektio bat eginda, aurreikusi daiteke hemen sortzen diren hondakinak ez direla nahikoa izango erraustegiarentzat. Beraz, hor beste borroka bat dago, ez ditzaten kanpotik hondakinak ekarri.

Zer erretzen den ere garrantzitsua da. Arriskutsuak diren eta debekatuta dauden materialak ezin dira erre. Hori ere zaindu beharko da.

Beraz, guk bi gauza eskatzen ditugu. Batetik, erraustegia martxan jartzeko berme nahikoa egon behar dira. Eta, bestetik, funtzionamenduaren kontrol demokratikoa eskatzen dugu. Oraindik asko dago egiteko.

**Erraustegitik kea ateratzen ikusteak eta Gipuzkoako Al-
dunditik zuen kontra egiten ari diren kanpainak ondorioak izan ditzake. Askok pentsa dezakete orain arteko borroka alferrikakoa izan dela, ezta?**

Ez da alferrikakoa izan, ezta gutxiago ere. Baina, batez ere, azken hitza ez dago esanda. Kea ikusten dugunean gure seme-alabak babesteko beharra indartu egin behar da. Orain hasten da benetako borroka, orain hasten baita benetako arriskua.

Eta alferrikakoa ez da izan. Hiru urteotan izugarri ikasi dugu. Klabea informazioa da eta gizarte informatu bat, kritikoa, ahaldunduagoa eta indartsuagoa da. Adibidez, duela gutxi deskubritu dugu

badela Stockholmeko nazioarteko hitzarmen bat hondakin iraunkor kutsakorren inguruan. Estatu espainolak sinatuta daukan hitzarmen horren arabera, agintariak behartuta daude herritarrak hondakin kutsakor horien arriskuez informatzera. Eta hemen justu kontrakoa egin dute, informazioa ezkutatu egin digute. Hemen gizarte mugimenduak arduratu dira herritarrak informatzeaz. Eta legeak agintariak behartzen ditu informazioa ematera. Hasiko dugun fase berri honetan informazioak sekulako garrantzia izango du. Gure pausoak hortik joango dira; gizartea informatu eta ahaldundu egin nahi dugu.

Krisi klimatikoa hitzetik hortzera eta erraustegia martxan hasteko pronto.

Erraustegiaren proiektua duela ia hogeita urte aurreikusi zen. Gauza asko aldatu dira, tartean, gizartearen kontzientzia bera. Proiektua ez da birplanteatu, ez da kokatu garai berrietan, ez da egokitu egungo gizartera. Egin den planteamendu bakarra honakoa izan da: proiektu hau egin egingo da bai ala bai.

Erraustegiaren proiektua garaiz kanpoko da, anakronismo bat. Eta okerrera da bultzatzailak irtenbide bat bezala saltzen dutela eta ez da irtenbide bat, arazo bat baizik. Ez dute ezer konpondu eta arazo berri bat sortu dute, garaiz kanpoko baita. Duela hogeita urteko harrikada bat, erabat zaharkitua geratu dena. Egungo Europan hau ez da irtenbidea. Guk garbi daukagu gure seme-alaben osasuna defendatzeko eta babesteko tresna guztiak erabiliko ditugula, besteren artean, baita diplomatikoa ere. Hau da, eseri eta gizartearekin adostu beharko dute nola konpondu arazo hau.



«Erraustegiak gaur egun ez dauka zentzurik, ezin du interes pribatuen esku egon eta are gutxiago kontrol demokratikorik gabe. Eta uste badute oso kontzientziatuta dagoen guraso talde bat ezer egin gabe geratuko dela, oso oker daude»

Foru Aldundiaren planen arabera, datozen 35 urteetan izango du erraustegia Gipuzkoak.

Hori astakeria hutsa da. Zergatik 35 urterako? Ba bere garaian Gipuzkoako Foru Aldundiak dagoeneko ezin zuelako gehiago zorpetu eta ez zuelako proiektua bultzatzeko dirurik. Hori dela eta, iruzurrezko bide bat topatu zuen, lanen kontzesio baten bidez, eta enpresa pribatu bati lotu zen datozen 35 urteetarako. Arima saldu zion deabruari. Edozein tokitatik begiratuta ere, erraustegiak ez dauka inolako zentzurik.

Bien bitartean, azkeneko hamarkadan eta hain iskanbiltasua izan zen atez ateko sistemarekin eskutik, hondakinak sailkatzea ohitura bihurtu da eta birziklatze tasa izugarri handitu da.

Bai, eta grazia ere egin digu duela gutxi telebista espainol batean Hernaniko adibidea azaldu denean, mundu mailako erreferente dela esanez. Europan inork ez dauka zalantzarik: hondakinak sailkatzea da bidea. Eta atez atekoarekin hemen gertatu zena guztiz onartezina litzateke gaur egun, inork ez luke babes-tuko.

Baina, tira, ez dezagun atzera begiratu, begiratu dezagun aurrera. Erraustegiak gaur egun ez dauka zentzurik, ezin du interes pribatuen esku egon eta are gutxiago kontrol demokratikorik gabe. Eta pentsatzen badute oso kontzientziatuta dagoen guraso talde bat ezer egin gabe geratuko dela, oso oker daude. Borroka hau ez da bukatu. Guk ezin dugu guraso bezala dimititu, gure eginbeharra da haurrak babestea. Erraustegiaren gaia konpondu egin behar da, bai edo bai. Eseri, hitz egin eta konpondu.

BAZTERREK NAHASTUTA

Feminismo periferikoei begira jarri da mugimendu feminista, bere erroak erradikal mantentzeko

Feminismoa zuri-tzea egotzi zitzairen instituzioek, telebistako tertuliakide anitzek eta oro har gizartearen gehiengoak greba feministaren bigarren garaipen bat ospatzen zuten bitartean, Euskal Herriko mugimendu feministak (EHMF) zeharka begiratu zien, bigarrenez, Euskal Herriko hiri eta herriak leporaino bete zituzten Martxoaren 8ko manifestazioei.

Jakina da manifestazio baten helburua ez dela ahalik eta jende gehien agertuko duen argazkia lortzea, argazki horrek nola baiteko aldaketak hauspotzea baizik. Eta argazki horretara batu ziren patronalak, Iberdrola bezalako enpresak, EAEko eta Nafarroako gobernuak eta Ipar Euskal Herriko hainbat instituzio publiko, nahiz eta EHMFk, setatsu eta etengabe, aldarrika-

JENDARTEA / Maddi Txintxurreta Agirregabiria

Martxoaren 8ko indar erakustalditik Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministek utzitako hausnarketa aldira, urte hau giltzarria izan da Euskal Herriko mugimendu feministarendako. Aurrera begirako pausoak zehazteaz gain, barrura begira ere jarri da, kolektiboan sortzen diren gatazkak pentsatzera.

tu zuen mobilizazio antikapitalista eta heteropatriarkatuaren aurkakoa zela eta, noski, aldarrikapenok zuzenean irauli asmo dituzte aipatu erakundeen jardun patriarkal eta kapitalistak.

Masen feminismo horrek ospatzeko nahiz hausnartzeko motiboak eman dizkio Euskal Herriko feminismoari, edo hobeto esan, feminismoei. Ospatzeko, zifratan azaldu ezin daitekeen grebaren jarraipen masiboa; feminismoaren –kontzeptu gisa bederen– gizartera-

tzea, edo demostratzea, ikasleen bloketik hasi eta pentsiodunen kolektiboraino, gorputz ororen askapenerako balio duen teoria-praxi politikoa dela feminismoa. Ospatzeko, baita ere, mahai gainean jarri zirelako lortzetik urruti diren zenbait aldarrikapen, aipatzearren, zaintza publikoa edo politika nahiz lege diskriminatzaileen deuseztapena. Baina noren mahai gainean jarri dira aldarrikapen hauek guztiak?

Martxoaren 8ko oihuak edonon entzun baziren ere, ez dute oihartzunik izan instituzio sorgorretan. Eta, izatekotan, makillaje traza bakan batzuk izan dira, inondik inora feminismoak urte luzez galdegin duen sistemaren errotiko iraultzea.

Horregatik, martxoaren 9ko beroan ospatu zirenak, Durangoko V. Jardunaldi Feministetan hausnartu ziren arnasa luzean. Edukiz bete eta ezaugarritu egin behar baitziren M8ko borroka eta erresistentzia horiek.

Martxoaren 8ko Donostiako manifestazioaren irudia.
Jon URBE | FOKU



STOP: KAPITALISMOAREN APROPIAZIOA

Hilabete honetan bertan Emakunderen berdintasun saria jaso duen Conny Carranza feministak argi utzi zuen Euskal Herriko V. Jardunaldi Feministen itxiera ekitaldian: «Gure feminismoa ezin da garbitu, ez da salgarria. Gure praktikak erbeldeak dira, transgresoreak, gure iraultza feminista da eta izango da».

Hiru mila emakumetik gora elkartu zituzten Jardunaldi Feministek, ustez, agenda feminista kolektibo bat atondu eta aurrera begira zer pauso eman zehazteko. Zaila da egun horietan ateratako ondorioak aletzea, baina bazegoen gehienek konpartitzen zuten alerta me-

Durango, bazegoen gehienek konpartitzen zuten alerta mezu bat: masa-feminismoarekin, feminismoak berezko duen erradikaltasuna galtzeko arriskua.

zu bat, Carranzak esandakoarekin lotuta: aipatu masen feminismoa ikusita, eta kapitalismoa saiatzzen ari dela feminismoari probetxua ateratzen berau estandarizatzearen bidez, korronte politiko honek berezko duen erradikaltasuna galtzeko eta estigma izatetik moda izatera igarotzeko arriskua ikusten zuten.

PAUSE: ERTZETATIK BULTZA

Kapitalismoaren gisako kanpofaktoreei nola, mugimendu feministaren erroei begira ere jarri ziren Durango. Eta ariketa horretan sortu ziren interpelazioak, deserosotasunak eta prozesu eraikitzaileak.

Askotarikoa da EHMF, eta hala izanagatik, indarkeria desberdinek gurutzatutako gorputzek bat egin zuten Durangoko Landako erakustazokan. Eta horrek gatazka sortu zuen. Hala, jardunaldien hiru egunetan egin ziren mahai-inguru eta eztabaidek demostratu zuten momentu giltzarri batean antolatatu zirela jardunaldiok, zuzenean interpelatu baitzuen mugimenduaren berrikusteko beharra. Zentzu horretan, batez ere, mugimendu feministan arrazismoaren aurkako borroka txertatzeko urgentsia azpimarratu zuten.

Ertzetako gorputzek hitz egin zuten, feminismo periferikoek, emakume zisgenero-zuri-heterosexualen praktika hegemonikoez gogaituta. Migratuak, arrazializatuak, «bollerak», transexualak, aniztasun funtzionaldunak, mugimendu feministan ere bazterreko direla gaitzetsi zuten, baina feminismoaren indar eraldatzailea batez ere gorputz horiengan dagoela ikusi zen Durango. «Zentrotik ateratzen diren gorputz hauek dira feminismoaren subjektu politikoak», baieztatu

Emakume izanagatik beraien burua zapaltzaileen bandoan sekula jarri ez zutenei pribilegioak onartu eta eraldatzeko galdegin zieten; batzuek onartu zuten, beste batzuek ez.

zuten Medeak talde transfeministakoek. Emakume izanagatik beraien burua zapaltzaileen bandoan sekula jarri ez zutenei pribilegioak onartu eta eraldatzeko galdegin zitzairen; batzuek onartu zuten, beste batzuek ez.

Pausa egin eta hausnartu, indartsuago ernaberrituta ekiteko.

PLAY: AGENDA FEMINISTA KOLEKTIBOA

Sare, aliantza edo zubien bitartez, agenda feminista kolektiboa adostea zen Durangoko helburuetako bat, eta gatazkak gatazka, hausnarketarako prozesua behar izanagatik ere, eragiteko aukerak egon badirela nabarmendu zuten Durango: «Zilegitasuna daukagu, indarra daukagula ikusten da, belaunaldi asko biltzen dituen mugimen-

dua garelako eta azken urteetan gazte asko batu direlako mugimendura». Bestalde, eta Martxoaren 8an ikusi zen moduan, «komunitate bat gara, autoestimua iraultzailea daukagu, esperientzia eta erreferentzialtasuna lortu dugu eta mobilizatzeko gaitasuna daukagu».

Mugimendu feministaren erronka historiko eta garrantzitsuenetako batean ere sakondu zuten jardunaldietan, indarkeria matxistari aurre egiteko estrategiak. Durango hiru bide nabarmendu zituzten: zigor-neurriak alboratuko dituen justizia feminista, autodefentsa feminista, eta biolentzia sinboliko edo «performatiboen» apropiazioa.

Hau guztia laburbiltzen duen leloa azaroaren 25ean, Indarkeria Sexistaren Aurkako Egunean kaleratu zuen EHM Fak. «Dena esanda dago», eta bigarren parte, gaztelaniaz: «Dena egiteke dago». Ea nori dagokion orain «play» botoia sakatzea.

Durango egin ziren
Euskal Herriko V.
Jardunaldi
Feministetako mahai-
inguru zentral bat.
Monika DEL VALLE | FOKU



{ analisis } **Ramon SOLA**

Neofrankismoari stop hirutan

Urte guztiek beren neologismoak ekartzen dituzte. *Trifachito* izan zen gehien entzundako hitza

apirileko hauteskunde bezperetan. Harro-harro ari ziren eskuz esku PP, Cs eta Vox, Madrilgo Colon plazan otsailean erakutsi zuten. Eta bazuten horretarako arrazoirik. Ustekabean 2018ko abenduan Andaluzian lortutako garaipena ez zen oilartuta izateko zuten datu bakarra; apirileko hauteskunde horiek deitzeko Pedro Sanchezen erabakiak berak frogatzen zuen Estatuko agenda eskuinak idazten zuela. Katalunian elkarrikitasuna bideak marrazten hasia nahikoa izan zen eskuinak eta ultraeskuinak elkartuta ondarraldia abiatzeko, legealdia bortizki bukaraziz. *Trifachito*-a beste neologismo batek olizotatu zuen: “Errelatorea”, Kataluniako balizko elkarrikitasuna haierarako fede-emailea, alegia.

Colongo argazkiaren eskutik birkonkista zetorrela-eta, Euskal Herriak bazuen zeresanik. Hori horrela, apirilaren 28an, hauteskontzietan izandako mobilizazioa nabaria izan zen goizean goizetik, eta, itxuraz, bere garaian frankismoari aurre egin zioten belaunaldi helduenek eman zuten ere neofrankismoari atea ixteko urratsa. Izan ere, nahiko arrotz egiten ohi zaizkigun hauteskunde estataletan Estatu osoaren pareko parte hartzea izan zen, %75ekoa alegia.

Hauteskunde urtea izan da 2019 hau: hiru aldiz jarri dira hautetsontziak Hego Euskal Herriko lau herrialdeetan eta hiru kasuetan neofrankismoa garaitua izan da; hurrenez hurren, Maroto, Esparza eta Abascalek irudikatzen dituzte porrotok. Apiriletik hasita...

Estatu osoan gehiengoa esku-ratetik gertu geratu zen *trifachito*-ak hondoa jo zuen Euskal Herrian, lau indarren artean (UPN barne, aurreraxeago azalduko dugun moduan) emandako botoen %20 baino ez zituztelako batu. Zehazki, 1.657.163 lagun joan ziren hautetsontzietara eta 300.000 baino gutxiagok egin zuten neofrankismoaren alde: 107.619 boto bildu zituen Navarra Sumak, 95.177 PPK, 46.068 Voxek eta 40.467 Ciudadanosek. Datu argigarri bat emateagatik, Unidas Podemos bakoitzak atxikimendu gutxiago lortu zituzten (293.203).

Eserleketan are adierazgarriagoa izan zen porrota, lehenbizikoz EAEn diputatu bakar bat lortu gabe gelditu baitzen eskuin espainiarra, PPK Bizkaia

zein Arabakoa galdu eta gero. Javier Marotoren aurpegia izango du ikur betiko gau horrek, Gasteizko alkate ohiak beste inork baino hobeto gorpuztu zuelako *trifachito*-aren izpiritu eta, aldi berean, euskal antifaxismoa pizteko gaitasuna. Kanpainan, Madril oso txalotua izan zen, eta ez soilik eskuinetik, Iñaki Ruiz de Pinedo EH Bilduko hautagaiarekin izan zuen ika-mika “El Correo”-k antolatutako eztabaidan, sutsuki «koldarra» eta «zaborra» izatea aurpegiratu baitzion. Horregatik are gozoagoa izan zen 236 bozen aldearekin Pinedok Marotori aurea hartu izana, eta are lotsagarriagoa PPKoak segituan Madrilgo eserleku bati eustegatik Segoviako Sotosalbos herria bizitoki hartu izana.

Trifachito apirileko hitza izan bazen, eta Maroto hilabeteko pertsonaia, tokia Sotosalbos berarekin batera Altsasu izan zen. Bi arrazoirengatik. Batetik, eskuineko indar horien metaketa berez ez zelako Madrilgo Colon plazan sortu, dezente xumeagoa den Altsasuko plazan baizik. España Ciudadana plataforma aterki gisa erabiliz, 2018ko azaroan bertan bildu ziren elkarrekin lehenbizikoz PP, Cs eta Vox, «Guardia Zibilaren alde». Eta bestetik, bertako Adur Ramirez de Alda gazte espetxeratuaren ama den Bel Pozuetak emaitza ikaragarria lortu zuelako apirilaren 28 horretan, EH Bilduko Nafarroako zerrendaburu gisa: 46.765 boto haiek, ordea, ez ziren nahikoa izan Kongresura iristeko, *trifachito*-a gelditzeko asmoz ere PSOEek zein Unidas Podemos bakoitzak ugaritu baitzituzten, Nafarroako bost eserleku banaketa inoiz baino garestiago jarritz.

Bi kolpe gehiago

Eskuin espainiarrak Euskal Herrian lortutako bi diputatu (eta hiru senatari) bakarrak Nafarroan lortu zituen. Beraz, pentsa liteke Nafarroan behintzat emaitza txukuna atera zuela... baina ez, hori ere ez. Zama astuna hartu zuen UPNk helburu horrekin: bere siglak Navarra Suma koalizioan urte eta bere ustezko sustrai nagusia (foralismoa) antiforalismoaren aitzindari den Ciudadanosekin nahastea. Hauteskunde beharrak



bultzatuta (ez apirilekoak jakina, maiatzekoak baizik), espero gabeko mugimendu bikoitza/hirukoitza egin zuen Javier Esparzak. Alderdiaren jarduna ikusita zentzuduna bazen PPrekin akordioa lortzea, baina ez Albert Riveraren alderdi hiperzentralista ere elkargunera batzea. Eta bistakoa zen Vox Nafarroan alde batera geratu zela irudikatu arren, Estatu mailan ultraeskuinak PP eta Cs alderdiekin zuen hurbiltasunak, zeharka-edo, *cuatrifachito*-a sortzen zuela Nafarroan.

Hauteskunde eguna helduta, benetan batu al zuen Navarra Sumak? Ez ote zuen batu baino gehiago kendu? Sinesgarritasun politikoan galera nabaria ekarri dio UPNri, eta boto kopuruan aurrekoaren pare geratu da. Nekez gainditu zuen 100.000 bozen langa, Aznarren garaian 150.000koa

Javier Marato, erdian, agur egiten; apirileko eskuinaren porrotak Gasteizko alkate ohiaren aurpegia du.
Juanan RUIZ | FOKU

gainditu ostean. Eta errealitateak are gogorrago jo zuen Esparza hilabete eskas geroago, maiatzaren 26ko foru eta udal hauteskundeetan, Navarra Sumaren helburu nagusi eta bakarra, Nafarroako Gobernua birkonkistatzea, ez baitzen gauzatu. Perspektiban begiratu, gainera, PSNrekin *nafar erregimena* berrosatzeko bidean kaltegarria bilakatu zaio UPNri hain bidaide desegokiak hartu izana.

Altsasutik Altsasura

Iruñeko alkatetza ozta-ozta berreskuratu izana (baita Tuteran, Barañain, Lizarra eta beste udal ugari ere), kontsolamendu eskasa da UPNrentzat. Eta hauteskunde emaitzetatik haratago, are kezkarriagoak dira alderdi foralistarentzat lerrokatze politikoetan 2019 honek ekarri dituen aldaketa sakonak,

PSNko Maria Chiviteren Gobernua ahalbidetu dutenak, hain zuzen ere.

Eta Vox? Apirilaren 28an Euskal Herrian nabarmendu ez bazen, azaroko bigarren hauteskunde estataletan ere ez. Tarte horretan, Estatu mailan milioi bat boz berri lortu zituen Santiago Abascal amurriarrak; Euskal Herrian, aldiz, mila gehiago soilik.

Izan ere, oraindik hirugarren zartako bat hartuko zuen eskuin espainiarrak 2019an; azaroak 10ekoa. Bizkaian PPK eserlekua partidaren luzapean urratu arren, Euskal Herrian norgehiagoka galduta duela berretsi da. Eta pare bat albiste txar gehiago jaso ditu: Araban Maroto ez zen arazo bakarra eta Nafarroan, oraingoan bai, Pozueta Kongresuan da. Altsasun abiatu nahi izan zuten birkonkista Altsasun ere amesgaizto bilakatu zaie.

ZAINZAILA ETA EMAKUMEA; PREKARIO IZATEKO KONDNA?

Amagoia Mujika Telleria

Irudimentsu, nekaezin, borrokalari. 2019a Gipuzkoako adinekoen egoitzetan lan egiten dutenen borrokaren urtea izan da zalantzarik gabe. 160 greba egun baino gehiago, askotariko protesta moduak eta borrokari eusteko grina. Horixe urtearen hondarretan piztuta dagoen metxa.

Pasa den irailaz geroztik ari dira borrokan eta dagoeneko 160 greba egun baino gehiago pilatu dituzte. Gipuzkoako zaharren egoitzetan eta eguneko zentroetan lan egiten duten 5.000 langile dira, ia denak emakumeak, eta gure jendartearen zutoin pisutsuenetakoa eusten ari dira: zaintza. Lan baldintza prekarioekin bukatzeko ari dira borrokan, irudimenez eta indarrez, baina mahaiaren beste aldean dauden enpresak –Aldundiak azpikontrataturak– ez dira mugitu. Zalantzarik gabe, 2019a emakume langile horien borrokaren urtea izan da. Datozen hilabeteek

Adinekoen egoitzetako langileak ez daude errenditzeko. Aldunditik arrastaka atera dituzte, kanpaldia egin dute, gorputzak erabiliz egin dituzte aldarrikapenak... Irudimena eta grina ez zaizkie falta, nahiz eta urtea luze joan den eta enpresak eta Gipuzkoako Foru Aldundia ez diren tokitik mugitu. Andoni CANELLADA eta Juan Carlos RUIZ | FOKU

zer emango duten ikusteko dagoen arren, langileek garbi daukate ez direla honaino iritsi orain pauso bat atzera emateko. Bai edo bai, borrokarekin segituko dute, beren lan baldintzak eta, beraz, adineko pertsonen zaintza hobetzeko neurriak lortu arte. Izan ere, langile hauen egoera, egunerokoan bizi duten estresa eta lan karga, ez da bakarrik beren kaltean, adinekoek jasotzen duten zaintzaren kalitatean ere eragin zuzena dauka. Eta, hala ere, zaintza ahalik duinena da langileek egiten duten ahaleginagatik. Oso presente dute-nez, «guk ez dugu torlojuekin lan egiten, pertsonekin baizik».

Langileek garbi daukate, «Aldundiko arduradunek ‘kalitatezko zaintza’ hitz egiten duten bakoitzean ileak tente jartzen zaizkigu. Egungoa kalitatezko zaintza izatera gerturatzen bada, langileen izugarritzko ahaleginari esker da. Baina asko dago hobetzeko. Ratioak aldatu behar dira, langile gehiago kontratatu, baldintza ekonomikoak hobetu, lan kontratuak egonkortu... Hori guztia Gipuzkoako Foru Aldundiaren ardura ere bada».

Langileen eskaeren artean, egungo prekaritatearekin bukatzea dago; %100eko kontratuak eta mugagabeak. «Badira %33 edo %40 inguruko lanal-



diak. Eta, gero, etengabe aldaketak sartzen dizkiete, unean-unean enpresak dituen beharrak asetzeko. Eta horrela joaten dira lanaldia osatzen. Edozein unetan deitzen diete lanera etortzeko, baimenak, bajak eta bestelakoak estaltzeko. Hartara, beti daude enpresaren mende, haren deiaren zain. Badira lan-tokira egunean bitan edo hirutan etortzen direnak. Behin-behineko langileak dira eta beldur dira ezezkoa esanez gero hurrengoan ez dietela berriz deituko orduak sartzeko. Langileen prekaritatearekin jolasten dute etengabe. Prekaritatea erabiltzen dute zentroan sortzen diren beharrak tapatzeko eta langileen egoera prekario hori betikotzen dute».

Mahaiaren gainean badira beste eskaera batzuk: oinarritzko soldata toki eta foru administrazioen mende dauden langileen batez bestekoarekin parekatzea; hiru urteko iraunaldia; kontratazio zuzena, mugagabea eta aldi osokoa; lanaldi normalak –orain oso lanaldi desberdinak dituzte–; langileen ratioak ezarriko dituen batzorde parekidea osatzea –hori oso garrantzitsua da. Aldundiak ezarritako ratioak oso eskasak dira eta lan karga eta erritmoa sekulakoa da. Ratioak oso desfasatuta daude eta askoz gehiago prekarizatzen dute sektorea–; prestakuntza eta formakuntza eta 20

minutuko atsedanak, ordainduak eta lanaldiaren barruan.

PREKARIZAZIOA BETIKOTZEKO OSAGAIK

Emakumeak dira, azpikontratatuak enpresetan lan egiten dute eta zaintzaz arduratzen dira. Prekarizazioa betikotzeko osagai guztiak dituen sektorea da eta, larriena dena, zerbitzu publiko bat eskaintzen du. Emakumeon lan gatazkak ertz esanguratsuak ditu eta bizi garen jendartearen zulo asko bistan uzten ditu. Lehena, zaintzaren ertza. Nagusien zentroetako langileek zaintzaren lehen lerroan lan egiten dute.

Lehen etxeetan egiten zen zaintza ikusezina zen, emakumeek egiten zutelako eta genero rolek inposatuta zeterrelako. Orain, zaintzaren parte garrantzitsu bat zentroetan egiten da, baina ikusezina izaten segitzen du. «Gure sektorea erabat feminizatuta dago eta horregatik gaude egoera hain prekarioan. Gertu tokatzen den arte, zaintza ikusezina da jendartearentzat. Are gehiago, jende gehienak beste aldera begiratzen du. Eta garbi dago zaintza izango dela datozen urteetan konpontzeko izango dugun korapilo handienetakoa», nabarmendu dute langileek.

Datuak argigarriak dira. 2029an Euskal Herriko biztanleriaren ia herenak 65

urte baino gehiago izango ditu. Aldaketa demografiko horiek dagoeneko hasi dira sumatzen. Bizitza-itxaropena luzatu ahala, adinekoen egoitzetan panorama aldatu egin da; gero eta erabiltzaile gehiago daude eta gero eta mendekotasun maila handiagoa dute. «Lehen erabiltzaileak askoz autonomoagoak ziren. Gaur egun, gero eta gehiago dira ‘mendekoak’ edo ‘oso mendekoak’ deitzen ditugunak. Horiek behar duten zaintza ere desberdina da, denbora eta arreta gehiago behar dute».

Egungo sistemak baditu beste zirrikitu asko. Publikoaren eta pribatuaren artekoak kasu. «Zaintzak publikoa izan beharko luke, tartean negozioa egin behar duten enpresarik gabe. Sistema hankaz gora jarri behar da horretarako, sustraitik aldatu beharra dago. Ideologia kontu bat da; zeri ematen diozu lehenetasuna gizarte bezala? Pertsonak ahalik eta ondoen egotea jaiotzen garenetik hiltzen garen arte. Eta hori horrela izan dadin baliabide eta jarrera onena eskaini behar da erakunde publikoetatik. Baina normalean mentalitate hori ez dator bat boterean daudenekin. Beren apustua enpresak azpikontratatzeko eta zaintzaren lepotik negozioa egiteko aukera ematea da», salatu dute behin eta berriz.



{ analisia } **Ibai AZPARREN**

Skolaeren errusiar mendia

Urtean barrena Skolae programak behea jo du, baina baita sabaita ere. Hezkuntzako hainbat eragileren txaloak jaso ditu Nafarroatik kanpo, baina baita talde atzerakoi eta ultrakatolikoen gutxiespena ere etxean. 2019. urtea, beraz, errusiar mendia izan dela esan daiteke aurreko Gobernuak martxan jarri zuen hezkidetza programarentzat.

Apirilean, Nafarroan polemika pil-pilean zela, estatu mailako LGTBI elkarten aipamen berezia jaso zuen Skolaek. Eraso erreakzionarioek, baina, jarraitu egin zuten, besteak beste, Maria Garcia Barberenarenak. Navarra Sumako Iruñeko zinegotziak naziekin alderatu zituen programaren arduradunak artikulatu baitzeuten. Adolf Hitler parafraseatuz, honako titularra hautatu zuen: “Zure seme-alabak nireak dira”. Hauteskundeak pasata, alkate-tzara itzuli zen Enrique Mayak Berdintasuneko zinegotzi izendatu zuen.

Ekainean, hondoa jo zuen Skolaek. Programa diseinatzen parte hartu zuten bost pertsona (berdintasunean eta hezkuntzan adituak) eta programaren trebakuntzan tutore izandako beste bost deklaratzera deitu zituzten Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan irekitako prozesu judizialean, San Cernin ikastetxe-ko guraso talde atzerakoi baten eta Concapa elkarteak de-



manda bana jarri ostean. Juan Jose Cortes Huelvan 2008an eraildako Mariluz Corts 5. urteko haurraren aitak zuzentzen duen Plataforma Nacional 18-M taldeak ere salaketa jarri zuen programaren aurka.

Harrigarriki, auzitegiek erakunde kristauon demandei bide ematen zieten bitartean, Unescok programaren inguruko interesa agertu zuen. Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak Skolae Nesken eta Emakumeen Hezkuntzarako Nazioarteko Saria jasotzeko ere izendatu zuen, «genero

**Sindikatu-
en elkarretaratzea 2019ko
urrian Nafarroako
Auzitegi Nagusian
deklaratu behar izan zuten
Skolae programako
bultzatzaileen alde.**
Iñigo URIZ | FOKU

berdintasunari egindako ekarpenagatik». Azkenean, gainera, Nafarroako programak mundu mailako saria lortu zuen.

Bien bitartean, Nafarroan polemikak ez zuen etenik, Skolaek talka egiten baitu erabat UPN-ren ikuspegiekin. Azken batean, hezkuntza politiketan argiki islatzen da alderdi bakoitzak babesten duen gizarte eredua, eta, horrek, Skolae gatazka politikoren epizentroan kokatu du. Hala ere, nabarmentzekoa da polemika gehien sorrarazi duten materialak, gazteei heziketa sexuala eta antisorgailuen gaine-

ko informazioa emateko erabilakoak, aspalditik erabiltzen zirela ikastetxeetan, baita UPN gobernuan zela ere. Pentsa, Osasunbideko teknikoek presatuko materialak dira.

Aurreko ikasturtearen amaierarekin batera, Skolaek hogeitazentrotan abian jarritako pilotutza programa gainditu zuen. Horrek, hurrengo ikasturtean egitasmoa ehun ikastetxe eta institututara helduko zela esan nahi zuen, tartean, Skolaeren aurkako jarra gogorrena azaldu zuten itunpeko ikastetxe erlijiosoak.

Polemikak polemika, ez dago soberan gogoratzea eskoletan kultura berdinzalea ezarri eta indarkeria sexisten aurrean kontzientziatzea dela Skolaeren nahia. Helburu horrekin, hainbat eduki lantzen dituzte, mailaren arabera, irakasleek: eskola jazarpena, sexualitatea, maitasun erromantikoa... Ez da baztertzekoa beste datu bat ere: pilotutza abian izan zen ikastetxeetan harrera bikaina izan zuen programak, irakasleek 8,5eko nota jarri baitzioten.

Zurrunbiloaren erdian, baina, maiatzeko hauteskunde autonomikoak heldu ziren. Eta gobernu aldaketa. Geroa Baik hainbat departamendu mantendu ditu gobernu berrian, baina Hezkuntza Kontseilari-tza eskuz aldatu zen eta Carlos Gimeno hartu du lekukoa. Hezkuntza kontseilari berriak oposizio gogorra egin zuen aurreko legegintzaldian kargu

Errusiar mendia bizi izan du Skolaek 2019an. Hezkuntza eragileen aitortza jaso du, baina baita sektore ultrakatolikoen jazarpena ere, tartean judiziala. Nafar Gobernu berriak, gainera, programa saritua sortu zuen taldearekin amaitu du.

bera izan zuen Maria Solanaren aurka, bereziki euskararen inguruko politikak tarteko.

Horiek horrela, behin ikasturtea amaituta, Gimeno Hezkuntza Departamentua birmoldatu zuen udan zehar, bide batez Skolae sortu zuen taldearekin amaituz, Pilar Mayo Berdintasuneko teknikari nagusia barne. Erabakiak deklaratzeko deitutako teknikariek egitasmoa uztea eragin zuen, tartean, Marian Moreno irakasle asturiarra. Programaren egileetako bat izan zenak argi adierazi zuen ez zegoela prest «programa nola aldatzen duten ikusteko». Hortik aurrera, programari buruz Gimeno kontseilariaren egindako adierazpenak zeharo inkoherenteak izan dira. Izan ere, progra-

ma goraipatu eta «hezkidetza ez da negoziatzen» adierazi ostean, itunpeko ikastetxeei laguntza eskaini zien programaren ezarpena moteldu eta materialak egokitzeke.

Bien bitartean, Iruñeko epaitegiek «lanean» jarraitu dute eta Skolaeko arduradunak berriro deklaratu behar izan dute «programa ideologiko baten aplikazio totalitarioagatik». Programaren egileetako bik jada bi aldiz agertu behar izan dute epaileen aurrean, eta, egoera ikusita, Nafarroako Gobernuak Skolaeren arduradunei sostengua adierazi beste aukerarik ez du izan.

Egoera are kafkiarragoa bilakatzeke, Skolaeko arduradunak epaileen aurrean izan eta bi egun eskasera, urriaren 11n,

Maria Chivite lehendakariak Parisen jaso zuen Nesken eta Emakumeen Hezkuntzarako Nazioarteko Saria. Unescok, Skolaek «haurrek berdintasun eskubidea gauzatzea» ahalbidetzen duela nabarmendu zuen, «bakoitzaren erlijioa, kultura eta sexu-orientazioa edozein izanda ere». Chivitek saria jasotzen zuen bitartean, programaren benetako egileek publiko gisa bertaratu beharra izan zuten. Ez zuten oholtzara igotzeko aukerarik izan.

Unescok emandakoa, gainera, ez da Skolaek jasotako sari bakarra izan. Azken batean, PSOerentzat ustekabeko pagotxa bilakatu da Skolae eta Gobernu espainolak Berdintasun Ministerioaren bitartez ematen duen saria ere jaso zuen Chivitek. Orduan, Nafarroako Gobernuak programaren benetako egileei saria jasotzeko baimenik ere ez zien eman.

Polemikaren erdian, programa ikastetxeetan nola aplikatzen ari den inguruko informazioa kezagarria da. Iturri batzuen harira, programa ez da osoki garatzen ari, eta, gainera, hainbat itunpeko ikastetxetan materialak egokitzen ari dira. Egoera ikusita, ikuskaritzara jo beharra izango dute arduradun politikoez programarekiko konpromisoa mantendu nahi badute. Gauzak aldatzen ez badira, gainera, ez da baztertzen kontrol parlamentarioa ere beharrezkoa izatea programa benetan bete dadin.



Juan Carlos RUIZ | FOKU

IKUSMIRA

ILLUNBE: ETORKIZUNERA BEGIRA, ELKARTASUNAREN SOINU BANDA

Kurtsoaren azken txanpan, ekainak 9an, 10.000 pertsonatik gora bildu ziren Illunben. Gehienak gazteak izan arren, belaunaldi desberdinetako pertsonak joan ziren ekitaldira. 800 boluntario aritu ziren lanean. 30 musika talde 11 orduz jotzen aritu ziren. Kontzertua banden bultzadaz antolatu zen. GARari injustuki egotzitako 3 milioi euroko zorraren berri izan bezain pronto, hainbat artistak beren burua aurkeztu zuten. Behar zenerako: elkartasuna emateko, mezuak zabaltzeko... eta jakina, jotzeko. Kontzertu paregabea izan zen. Aurten, espolioaren harira, milaka pertsona aritu dira gurekin boluntario. Aurrera begira ditugun planei eutsi ahal izateko Illunbekoa garrantzitsua izan zen. Ez ginelako mundu honetara soilik sufritzeko etorri; gozatzen ere badakigulako. Estatuko botereek atzera begira nahi gaituzte. Euskal jendartea ez dago ergelkeria gehiago jasateko prest. Horregatik, kantuz edo hitzez, adierazpen askatasunaren, prentsa askatasunaren eta herri honen pluraltasunaren alde azaldu dira herritarrak. Guztiei, hamar mila esker! **Iñaki Soto**

Julio Sotok Nafarroako txapela bosgarrenez jantzi du aurten, martxoan Anaitasunan izandako finalean. Eneko Lazkozekin buruz burukora iritsita jantzi zuen txapela eta bukaerako agurrean, Sotok ohi duen moduan, bizitzako lezio garrantzitsua; «bere poz eta bere min, ederra da bizitzea».

Jagoba MANTEROLA | FOKU



Beñat Gaztelumendi, bigarren, Gipuzkoako txapeldun. Illunben jokaturako final jendetsuan jantzi zuen txapela abenduan, Agin Labururekin buruz burukoa jokatu eta gero. Añorgakoa oso ibilbide propioa osatzen ari da oholdtan eta oholdzatik kanpo, eta biak parean jartzen asmatzen ari da.

Gorka RUBIO | FOKU

Klika. Eta 21 bete ditu aurten Korrikak, Garestik Gasteiza. Maialen Lujanbiok irakurri zuen azken mezua, dotore bezain zuzen. «Erakundeek, alderdi politikoek, komunikabideek hainbeste maite gaituzte korrika gabiltzala. Zergatik gutxietsiko ote gaituzte hainbestetan oinez gabiltzanean».

Luis JAUREGIALTZO | FOKU



PENTSIO DUINEN ALDEKO «JO ETA KE»-A

Elkarretaratzeak astero, manifestazio jendetsuak, oinez Madrila, mozioak udaletan eta, azkena, grebari bultzada



Irudian, Bizkaiko pentsiodunek Bilbon azken egunetan eginiko mobilizazioa.
Marisol RAMÍREZ | FOKU

Bidasoaren iparraldean oso etorkizun beltza marrazten duen pentsioen erreforma batek mobilizazio handiak piztu dituen bitartean, hegoaldean, pentsiodunen borrokak bi urte beteko ditu laster. Eta badirudi borrokak luze joko duela oraindik. Erretiratuek argi utzi dute ez daudela etxera ezer gabe edo etorkizunik ziurtatzen ez duten apurrekin itzultzeko prest. Gauzak horrela, gelditu barik, urrats berriak egin dituzte 2019ko ibilbidean eta urte berriari begira ere jarri dira.

0,25eko igoera iraingarri hark mobilizazioen olatua altxatu zuenetik, elkarretaratzeetan ehun astelehenetako muga gainditu dute. Protestak ez dira hiriburuetara mugatu, herrietan ere sekulako mobilizazio

JENDARTEA / Nerea Goti

Hego Euskal Herrian pentsio publiko eta duinen aldeko borrokak ez du etenik. Erretiratuei berdín zaie uda, jaiak edo Gabonak izatea; berdín euri zaparrada edo bero sapa. Kalera irten behar bada, kalera. Beste borroka asko ezagututakoak kalean jarraitzeko prest daude, etorkizuna eta justizia soziala jokoan baitaude.

jendetsuak izan dira urtean zehar. Aldarrikapenak ez du etenik izan, ezta udan zehar ere. Aste nagusiak eta herrietako jaiak eurak aldarrikapenen bozgorailu izan dira hauteskunder jositako hamarkada ixten duen 2019 honetan.

Mezu propioaz gain, bizitza duinaren aldeko beste borroka batzuekin bat egin dute. Mugimendu feministarenak, gazteriarenak edo klima aldaketaren kontrako borrokak eta pentsiodunen mobilizazioak elkar eli-

katu eta elkar osatu dute. Hartara, partekatzen duten mezua erdigunean jarri eta bizitza duinaren aldeko ikurra guztiek batera altxatu dute. Hurrengo jomuga, horren adierazle izango den greba orokorra, urtarilaren 30ean.

HEDATUTA ETA INDARTSU

Urteak emandakoaz galdetuta, pentsiodunen mugimenduak aldarrikapenek duten indarra eta hedapena nabarmentzen ditu. Foku informatiboan izan ohi diren hiriburuetako mobilizazioe-

kin batera, herri askotan ez diote mobilizatzeari utzi, eta manifestazio handietan izen propioarekin agertu dira.

Jon Fano Bizkaiko mugimenduko kideetako bat da. Dioenez, mobilizazioek herrialdean duten hedapena datu esanguratsua da. Bizkaian, zehaztu duenez, Durangaldea, Hego Uribe, Ezkerraldea edota Meatzaldean, besteak beste, pentsio publikoaren aldeko elkarretaratzeek milaka herritar mobilizatu dituzte. Gainontzeko herrialdeetan antzeko joera izan du mugimenduak, eta nabarmentzekoak dira Gipuzkoan, Eibarren edota Araban, Laudion, esaterako, izandako etengabeko mobilizazioak.

Horrekin batera, udalen ateari ere jo dituzte, pentsio publiko eta duinen aldeko mozioak aurkeztuta. Bizkaiko kasuari erreparatuta, datu zehatzak zabalduko dituzte, baina Fanok

Gasteizko eta Iruñeko legebiltzarren aurrera eramane dute gutxieneko 1.080 euroko pentsioen aldeko mezua, baita udaletara ere mozioen bidez

aurreratu digunez 51 bat herri-tan egon da presente pentsiodu-nen mugimendua, eta 38 herri-tan lortu da onarpena, neurri handi batean EH Bilduk eskaini-tako babesari esker.

Asteleheneroko elkarretaratze eta manifestazio handiek alda-rrikapenak kalean mantendu di-tuzten bitartean, bestelako mu-gimenduak ere izan dira. Horien artean, erretiratu talde batek Madrilera oinez egindako mar-txa, edo urte bukaerarekin, He-go Euskal Herriko bi parlamen-tuen aurreko ekimenak.

BURDINAREN HURA, GOGOAN

1992. urteko «burdinaren mar-txaren» itxura hartu zuen 30 la-gun inguruk Madrilera inoiz egin-dako ibilaldiak. 400 kilometro inguru bete zituzten, autoen bo-zinen agurren artean. Herrietan harrera beroak izan zituzten. GARARI eta NAIZ-i komentatu zieten, «hunkigarriak» egin zitzaizkien bidean zehar aurki-

Pentsio duinen aldeko borroka urtarilaren 30eko grebarekin bat egin du, langile klasearen beste borroken ondoan, «lan, pentsio eta bizitza duinaren alde»

tutako jendearen elkartasunez-ko keinuak.

Adierazi zuten, esperien-tziak balio izan zuen aldarrika-penek kalean duten sostengua baieztatzeke. Indarrak hartuta, kongresu espainolaren aurrera heldu ziren gobernu aurrerakoi bat eskatzeko, eskumako erre-forma atzerakoiak bertan behe-ra utzi eta pentsioen sistema publikoa bermatzea eskatzeko.

Kongresu espainoleko biga-rren hauteskundeak etorri ziren ondoren. Borroka feministare-kin edota klima aldaketaren au-rreko borrokarekin gertatu be-zala, hautetsontziak botoz betetzeko hitzorduek erakusten dute zenbait indar politikok bo-rroka horien ondoko argazkiak

Pentsiodunen martxaren iritsiera Madrilera, eta pentsio duinen eskaera kalean.
J. DANAE

bilatzen dituztela; beste kontu bat da mezuak konpromiso po-litikoak bilakatzeko orduan.

Promesekin fidatzen ez dire-lako, siglarik gabeko mugimen-duak ekimen legegile baten es-kaera eramane berri du Gasteizko eta Iruñeko legebil-tzarretara, besteak beste, Estatu-ko aurrekontuetan pentsio sis-tema publikoa finantzatzeko bermea eskatuz.

LEGEA IDAZTEN HASTEKO ESKAERA

Milaka lagun bildu zituen pro-testaldiak urtarilean eurekin batzartu eta aipatutako ekimen legegilea lantzeari ekitea eskatu zien alderdi politikoei.

Pentsioetan legez gutxienez KPI errearen arabera igoera bermatzea, gutxieneko 1.080 euroko pentsioa ezartzea eta ja-sangarritasun faktorea eta mu-rrizketak bertan behea uztea aldarrikatzen dute. Era berean, emakumeen eskubideak bermatzen dituzten neurriak eskatzen dituzte, eta pentsioetan dagoen arrakala ezabatzea.

Madrilen osatuko den gober-nuaz ez dute berez gehiegi espe-ro. Salatu dute Sanchez buru izango duen exekutiboak ez duela erakutsi erreformak ber-tan behea uzteko asmorik. Urratsak egiteko «denbora nahi-koa izan du iazko maiatzetik» eta «urte oso baten ondoren ez dakigu urtarilean zenbatekoa izango den gure pentsioa», aipa-tu dutenez.

Beste hainbat borroka ezagu-tu duten horiek badakite gauzak aldatzeko presioa kaletik hasten dela. Horregatik, bestelako aho-tsak altxatu badira ere, pentsio-dunen mugimenduak urtarile-ko greba orokorrean jarri du begirada, harreman zuzena du-ten bizitza duinaren aldeko bo-rroka ezberdinen bilgunea izan-go baita deialdia: «Lan, pentsio eta bizitza duinaren alde».



{ analisia } **Dabid Lazkanoiturburu**

G7: gailurra ala hondoa

Biarritz Lapurdiko kostaldeko hiria aukeratu zuen Emmanuel Macron presidente frantziarrak munduko herrialde aberatsenak biltzen dituen G7aren urteroko bilera egiteko.

Uda bete-betean, abuztuan, segurtasun neurri izugarriak inposatzen dituen bilera bat antolatzeak, non eta Euskal Herria zatitzen duen mugan, egundoko haserrea eragin zuen herritarren artean. Ez bakarrik jendearen –eta garai hauetan ugariak

diren turisten– egunerokoan eragina izan zezakeelako –azkelean aurreikusten zen baino arinagoa izan zen, baina batez ere jendeak alde egin zuelako–.

Munduko eta batez ere Mendebaldeko estatu aberatsenen agintarien urteroko bilera mobilizazio aitzakia da globalizazio neoliberalaren aurkako mugimenduentzat, eta oro har, ezkerreko alderdientzat.

Aurten ere horrela izan da Bidasoa ibaiaren ertz batean eta bestean antolatu izan diren ekimen, akanpada eta manifestazioetan. Gainera, ekitaldiak tin-

koak baina bide batez baketsuak izan dira, Euskal Herriko mugimenduen heldutasuna agerian geratu delarik.

Dena den, gailur alternatiboak lau haizetara zabaldu ditu bere burua «munduko gobernutzat» duen gailurrak eragindako haserrea eta kritika zorrotzak. Izan ere, haren helburu bakarra, 1970eko hamarkadan sortu zenetik, kapitalismoa mantentzea eta sistemak gero eta sarriago bizi dituen krisiak gailentzea da.

1973an petrolioaren inguruan sortu zen krisiak, II Mundu Gerraren ostean eraiki zen arkitektura ekonomikoa kolokan jarri zuenak, bultzatu zuen gero G7 izenarekin ezagutzera emango zen lehen gailurra.

Aurtengoa ere adituak krisi ekonomiko larri baten atarian gaudela iragartzen ari direnean izan da. Egoera noiz lehertuko den ekonomialarien arteko eztabaida alde batera utzita, argi dagoena zera da, bihar ez bada etzi izango dela, sistemaren baitan daudelako krisi ziklikoak. Eta, garrantzitsuagoa, 2008ko krisialdi globala gainditu ez den honetan izan dela bilera, adituek –salbuespen batzuk kenduta– aurreikusi ez zuten krisia, hain zuzen.

Krisialdi politikoa

Era berean, mundua krisialdi politiko sakonean murgiltzen ari dela begi bistan dago aurten.

Latinoamerikatik hasita Asiatik ekialdeko muturreraino, eta Ekialde Hurbila ahaztu gabe,

G7aren aurkako manifestazioa Biarritzeko karriketan.
Bob EDMÉ | F



matxinadak, protestak, gobernuen aurkako mobilizazioak... nonahi daude.

Jendea haserre dago, politikariak, arazoak konpondu beharrean, arazoa bilakatu omen direlako. Gutxi dira, gainera, irain horretatik salbu dauden erregimenak, eskuinekoak nahiz ezkerrekoak, mendebaldeak nahiz ekialdekoak, AEBen inperioaren aurkariak nahiz Washingtonen jarraitzaile sutsuenak.

Protestatan agenda asko daude, baita potentzia ezberdinen arteko lehia eskutuak ere, baina (ia) guztiek egoerarekiko frustrazioa azaltzen dute. Eta frustrazio hori gobernuaren, sistemaren edo oro har erregimenaren aurka egikitzen da.

Eta, zentzu horretan, azken mende ia osoan gailendu den ordena liberalaren krisiaren erantzule nagusiak dira Biarritzen bildu zirenak eta horien aurrekoak. Ez da, gainera, erantzukizun makala, krisi horrek ultraeskuinari sekulako arnasa eman diolako.

Galerak banatu

G7aren sorrerak eta bilakaerak argi eta garbi erakutsi digunez, agintari eta potentzia horien leloa zera da: «Irabaziak bereganatu eta galerak banatu».

60ko hamarkadaren amaiera murgildu ondoren sistema arriskuan ikusi zutelako bildu ziren eta, denborak aurrera

Bildutako agintariak izan ezik, G7ak ez du inor ordezkutzen, ezta Txina eta gorabidean diren gainerako herrialdeak ere. Gainera, ez du inolako eragin positiborik munduak bizi duen krisian. Euskal Herriak aurre egin dio aurten Biarritzeko gailurrean

egin ahala, gainerako estatuen elkarlana eskatu izan dute eurenari eusteko.

G7ko herrialdeek munduko populazioaren %17 baino ez dute biltzen. Ekonomikoki ere gero eta gutxiago dira, gehienbat Txinaren hazkundearekin baina baita beste herrialde batzuenarekin ere (India, Mexiko, Brasil, Indonesia, Turkia) alderatuta.

Behar horretan, eta oro har galerak eta ardurak banatzeko estrategian kokatzen da G20aren sorrera, Asiako Tigreen krisiaren baitan, eta gorpuzkera, 2008ko krisialdi globalaren ostean.

Kezkak «sozializatzen» adituak badira ere, G7koak ez daude prest paper nagusia uzteko. Hori oso garbi geratu zen

Errusia gonbidatuz taldea G8 bilakatu zenean. Gonbidapen interesatua, Mendebaldea beldur baitzen Sobietar Batasuna desegin eta Boris Jeltsinen agindupean Errusia bera ez ote zen desagertuko «glasnost» liberal baten eraginez. Sartu bai, baina bigarren mailan geratu zen Mosku, eta Vladimir Putinnek munduan Errusiak bere garaian izan zuen pisua aldarrikatu zuenean, lehenik Georgian, gero Ukrainan (Krimia eta Donbass) eta egun Sirian eta Afrikako hainbat lurraldetan, AEBek, orain arte G7an (NATOn eta munduko erakunde ekonomikoetan) agindu dutenak, Asia-Europako erraldoia taldetik bota zuten.

Gauzak aldatu dira, oster, eta Donald Trump presidentea

bere laguna den Putin klubera gonbidatzeko asmoarekin iritsi zen Biarritzera.

Datorren urtean bera izango da G7aren maizterra (azkenean Camp Daviden bilduko dira, eta ez Trumpek duen golf instalazio erraldoian, Floridan) eta hor izango du aukera bere gonbita berresteko.

Hori kenduta, ezer gutxi Trumpen eta Macronen eszenifikazioaz aparte. Estatubatuarrek sekulako mehatxuak egin zizkion hegazkinean zetorrela. Muga zergen gerra egingo ziolakoan, baldin eta Interneten erraldoiei zergak kobratzeko proiektuari eutsiko balio.

Irango auzia

Trumpek Boris Johnson britainiar lehen ministroarekin egin zuen bilera –eta eman zion bultzada– gailurraren irudia izango zela espero zuenean, Macronek Mohamad Javad Zarif Irango Kanpo ministroa gonbidatu zuen Biarritzera.

Kolpe ederra zirudien, batez ere uda horretan Ormuzeko itsasartean gertatu ziren eraso eta segadek gerraren atarian uzten gintuztelako.

Hala ere, denbora pasa ahala, teatro-kolpea baino ez zela izan argi geratu da eta Europako potentziak ez dira kapaz izan AEBek Teherani egiten dioten xantaia ez dutela onartuko esateko. Eszenifikazio hutsa, eszenifikazio gordina.

MAREA BIZIAK BASAMORTUAN

Buruzagi katalanen aurkako epaiak erakundeak gaindituta, gizarteak hartu du, mugekin, erantzuteko lana

Henry Kissingerrek galdetu omen zuen, 70eko hamarkadan, nor deitu behar zuen Europarekin hitz egin nahi izanez gero. Galderra bera egin dezakegu 2019ko Katalunian. Duela bi urteko urriaren 1era arte aho batez hitz egiten zuen independentismoak sakabanatuta jarraitzen du, deskodifikatzea gero eta zailago den kakofonia batean murgilduta. Historiak, edonola, ez du etetik Katalunian.

Hemendik hamar urtera 2019. urtean zer gertatu zen galdetzen badiete katalanei, pentsa dezakegu erantzun bat izanen dela: sententziaren urtea. Historiako geratuko baita, 1934an Companysen kontrako zigorra geratu zen bezala, hamabi buruzagi independentisten kontrako sen-

 **POLITIKA** / Beñat ZALDUA

Urte judiziala izan da erabat Kataluniakoa. Espainiako Auzitegi Gorenean hasi zen urtea Europar Batasuneko Justizia Auzitegian bukatu da. Europako Parlamentuko atea irekitzen dituen azken garaipen partzialak ez ditu ezkututzen, ordea, 2017ko dinamiketan katramilatuta dagoen mugimendu baten ajeak.

tentzia. Auzitegi Gorenak 13 urte arteko espetxealdia ezarri zien urrian, zergatik eta hautesontzi batzuk jartzeagatik.

Hala ere, formalismoak bete behar ziren, eta sententzia baino lehenago, epaiketa etorri zen. Auzitegi Gorenaren Osoko Bilkuren aretoa atondu eta gero, lau hilabetez zuzenean eman zuten telebista bidez antzezlan judiziala. Defentsa ildo desberdinen arteko elkarbizitzak ez zuen erraztu berez ezinezkoa zirudien lana, eta Gorenean jaun

eta jabe ezarri zen Manuel Marchena epailea. Nahi bezala eraman zuen prozesua, aurretiazko arazoetatik urriko sententziara arte, bidean epaitutako pertsonen eskubide politikoak urratuz, urte bukaeran Europako Batasuneko Justizia Auzitegiak ebatzi duenaren arabera.

ALDERDIAK LEHIA ETENGABEAN

Errepresioak, baina, ez du balio izan alderdi politikoak batzeko, ezta 2019 honetan ere. Gobernua partekatu arren, JxCat eta ERC alderdiek lehia bizian dihardute, eta zaila da pentsatzea hauteskundeak deitu gabe igaro ahalko dutenik 2020a. Quim Torrararen balizko inhabilitazioa, desobedientzia medio, izan daiteke deialdirako aitzakia.

Hauteskunde osteko panorama asmatzea, ordea, beste kontu bat da. Inkestek beti ERC sartzien dute, baina hautetsontzien

Tsunami Democratic ekimenaren «Sit and Talk» (Eseri eta hitz egin) pankarta, abenduaren 18an Camp Nou futbol zelaian.
Matthew CAVANAUGH | EFE





erantzuna konplexuagoa izaten da. 2019an lau aldiz bozkatu dute katalanek, hego euskal herri-tarrek bezala. Udal hauteskundeetan eta bi norgehiagoka estataletan ERCK irabazi zuen, nahiz eta azaroko hitzorduan botoak galdu zituen apirilarekin alderatuta, JxCat-ek gora egiten zuen bitartean. Europako hauteskundeetan, aldiz, Puigdemont zerrendaburu, JxCat-ek irabazi zuen bozaldia. CUP, bere aldetik, lehenengo aldiz aurkeztu eta sartu zen azaroan Madrilgo Parlamentuan, Ciudadanosen gainbehera ekarri zuten hauteskundeetan. Bere boto emaileen bila abiatu da jada go-setutako PSC.

Alderdien arteko lehia argitu gabe –eta ez du zertan azkar argitu–, zaila izanen da subiranistek bide orri amankomuna adostea. Estrategia garbirik gabe, JxCat-ek epikan bilatzen ditu bere argumentu politikoak, Puigdemonten erbestea erabiliz. ERCK badu estrategia, gogoz saiatzen ari baita Comuns-ekin elkarlana sustatzen, gehiengo berrien bila, behin onartuta independentismoak ez duela %50ko langa gainditu Katalu-

nian. Erabat garbi ez dagoena da, ordea, estrategia horrek indar nagusi bezala gobernatzeko aukera emanen dion ala ez.

AUTONOMISMOAREN HILOBIA

Alderdikeriak alde batera utzita, bide orri falta nabarmena izan zen urrian, Auzitegi Gorenak aipatu sententzia kaleratu zuenean. Sententziak bi urtez geldiarazitako samina eta indarra askatu zuen, baina energia horrek ez zuen topatu alde zurretik prestatutako biderik. Hala eta guztiz ere, 2017ko udazkene-tik ikusten ez ziren mobilizazioak ikusi dira udazken honetan. Are eta gehiago, prozesu subiranistaren markoan urteotan ikusi ez dugun dimentsioa hartu zuten protestek. Bartzelonako

Auzitegi Gorenean epaitutako hamabi buruzagi independentistak, ahozko ikustaldiaren hasieran, otsailean. Emilio NARANJO | EFE

Sententziaren osteko gertakariak instituzio autonomikoen mugak azaleratu zituzten. Gobernuak babestu nahi zituen mobilizazioak erreprimitu zituzten mossoek

Urtea Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren epaiarekin itxi da, Junqueras eta Puigdemont lehen lerroetara ekarriz berriro ere. Hautagai gisa errepikatuko ote dute?

zentroak sua hartu zuen astebe-tez, eta, hiriburuarekin, Gironak, Lleidak, Manresak eta beste hainbat hirik. Paraleloki, hamar-naka mila lagunek hartu zuten parte ANCK antolatutako Aska-tasunaren Martxetan.

Eta bitartean... instituzio auto-nomikoak kolapsatu egin ziren. 155 berri baten beldurrak geldia-razirik, hitzez –eta gogoz– mobi-lizazioak babesten zituen Gene-ralitateak mossoak bidali zituen Polizia espainiarrekin batera protestak itotzera. Kontraesa-nak gaindiezinak izan ziren egun haietan, autonomismoa-ren muga guztiak agerian utziz, preso prebentiboen zenbakia gora zihoan bitartean. Gazteak izan ziren, batik bat, istiluetan protagonista; 2012ko lehen Dia-da handian 10-15 urte zituzte-nen belaunaldia. Arrazoibidea erraz topatu zuten: bide bake-tsuak 13 urteko zigorra badakar, zer dauka txarretik barrikada batek? Mugimendu artikulatu sendo bat gabe, ordea, autono-mismoaren heriotzak ez du zer-tan ezer hoberik ekarri behar.

Erreferenteen bila, Tsunami Democratic ekimena bilakatu da azken hilabeteotan indepen-dentismoa modu antolatuan batzeko gaitasun handiena era-kutsi duena. Waterloo, Geneva eta Bartzelonako trianguluan sortutako plataformak kreditua irabazi zuen sententziaren egu-nean Prateko aireportuan deitu-tako mobilizazioan, eta teknolo-gia berrien erabilera neurtuak plus garrantzitsua ematen dio. Camp Nou futbol zelaiko ekin-tza erdi-frustratuak, ordea, mo-bilizazio mota honen mugak go-gorarazi zituen. Tsunamia deitzea gehiegikeria izan liteke, baina itxaropena artikulatzen laguntzen duten marea biziak sortzeko potentziala gordetzen duela aise erakutsi du azken hi-labeteotan.

2019



Altsasukoak aske. Herriaren taupada ez da baretu injustiziaren aurrean. Gurasoek eta ingurukoek asmatu dute aldarrikapena piztuta mantentzen eta herria ez da kaletik erretiratu. Urtearen hondarretan, kartzelan dauden zazpietatik biri hirugarren gradua eman diete. Poz gazia, denek behar baitute kolean. Jon URBE | FOKU



Etxeko sukaldean gozo eta ustez babestuta zeuden goiz batean Amurrioko baserri batean. Polizia ohi batek tiro egin eta sukaldeko leihotik sartu zen bala, bertan ziren bi pertsonen ondo-ondotik. Ez da ipuin bat. Ondorioak? Batzuen-tzat ziurgabetasun sentsazioa. Bestearentzat, batere ez. Jaizki FONTANEDA | FOKU

11/13 sumarioa. Kasik zenbakirik gabe geratu dira euskal herritarrek Madrila arrastaka eramaten dituzten sumarioak izendatzeko. 47 euskal herritarrek agertu behar izan dute epailearen aurrera, presoek eta iheslariaren eskubideen alde lan egiteagatik. Horietatik bik kartzelan segitzen dute. Aritz LOIOLA | FOKU



Plazetako zorua bezain hotz sentitu dugu gorputza hilketak ma-
txista bakoitza azalean iltzatu zaigunean, eraso matxista ba-
koitzaren berri jakitean, beldurra sentitu dugun bakoitzean.
Mayie, Alicia, Chantal eta nahi baino izen gehiago. Lanean segi-
tuko dugu. Ez dago beste aukerarik. Jagoba MANTEROLA | FOKU




Uholdeek gogor astindu zituzten uztalean Orbaibar, Tafalla, Erriberri, Pitillas eta Beire. Gogo-
rra izan zen, baina ura baretu orduko agertu zen jendea lokaztutako bazter guztietatik, adin
guztietako jendea, auzolanerako prest. «Zer egin behar da?». Urrian, berriz, kontzertu bat
izan zen kaltetutakoen alde. Auzolana, betikotzea merezi duen hitza. Idoia ZABALETA | FOKU

Gaztelugatxeko eskaileretako jendetzak zer pentsatua ematen du; egun bakarrean 6.150 bi-
sitari, urtean 235.000 bisitaritik gora. Turismoa hazi egin da, kasu askotan gainezka egiterai-
no. Eta Gaztelugatxen bezala Donostian, geratu eta hausnartzeko garaia iritsi da zalantzarik
gabe. Monika DEL VALLE | FOKU



Anaitasunak kolore eta argi berezia bereganatzen ditu elkarta-
sunez janzten denean; ahizpatasunez, baikortasunez, pareki-
detasunez, justiziaz, alaitasunez, irudimenez. Sudur gorri bate-
an kabitzen dira horiek denak, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen
sudur gorri bakoitzean. Iñigo URIZ | FOKU



Argazkia: Jon URBE | FOKU



«Aurkariak izateaz gain, lankideak gara. Lan berdina egiten dugu eta gure artean hitz egin behar dugu. Bakoitzaren kasuak ezagutu, egoera ezberdinei nola erantzuten dioten jakin... Baldintza onenetan lan egitea bilatu behar dugu»

Oinarrizko aldarrikape-nak jaso eze-an, greba egingo zute-la ohartarazi zuten urrian futbolariak. Azaro-ko hirugarren asteburuan egin zuten geldialdia. Urte historikoa izan da emakumezkoen futbolarentzat. Luze iraun du negoziazioak eta aurreakordioa lortu dute urtea bukatu aurretik. Futbolari guztientzat bermea izango da. Gertutik jarraitu du guztia Realeko atezain Mariasun Quiñonesek (Hondarribia, 1996) eta bere ikuspegia azaldu du, Realaren lehen Kopaz ahaztu gabe.

Realak historiako lehen garai-kurra irabazi du 2019an.

Koparen lorpenarekin borobil geratu zaigu 2019a. Oso urte po-

lita izan da, berezia. Maiatzean lortutako Kopa gure oroimene-an geratuko da. Historia egin dugu, polita da gainera kalera ateratzea eta irribarrez ikustea jendea. Orain jendea gogotsu dago, neurketa ikusteko irrikaz dago, Reale Arena berria ireki dugunean jendeak oso ondo erantzun du. Eta hori oso positiboa da. Gu oso pozik gaude, gure lana da. Bidean gaude berdintasun maila hori lortzeko asmoz.

Realak aprobetxatu du Kopak eragindako olatua, eta urtea bukatzeko, hitzarmeneko aurreakordioa sinatu duzue.

Bai, ez dira gure taldearen emaitzak soilik. Gizarteak eragindako aldaketa da. Jendeak ikusi du futbola nesken arloan ere polita dela, gure lana egiten dugula eta

merezi dugula. Hitzarmen horretan guk eskatzen genituen gauzak oinarrizkoenak dira, ezin dugu ahaztu jokalar askok eta askok bizi izan dutena. Futbola utzi, lesioak, autobuseko bidaia amaigabeak... Gauza asko izan dira historian zehar ez ditugunak kontatu, ez direnak publikoki argitaratu, eta orain datozen gazte horiek asko eskertuko digute egindako lana.

Nik nire gaztetasunetik hitz eginda eskertu behar diet aurretik eduki ditudan erreferente guztiei, beraien lanagatik gaude gaur egun gauden lekuan.

Urte bat baino gehiago iraun du negoziazioak. Nola bizi izan duzu hau guztia?

Luzea egin zaigu. Hilabete asko izan dira, bilera asko, eztabaida asko. Gurea borrokatzeko asmoz

joan gara bileretara, asko eztabaidatu dugu. Baita gure artean ere. Non jarri marra gorria, nondik pasa, nondik ez pasa. Gauza asko egin ditugu. Ez geunden prest oinarrizko hitzarmen hau gutxienekoa baino beheragoko zerbait izateko.

Langileak gara futbolariak izateaz gain. Edozein lanbidetan langileek hitzarmena dute, eskubideak dituzte. Guk zergatik ez? Lana egiten dugu, instalazioetara joaten gara, pila bat ordu pasatzen ditugu. Nahi dugulako aritzen gara futboleko, bai; gus-tatzen zaiguna egiten dugulako. Baina horrek ez du esan nahi gure eskubideak eta behar horiek pixka bat duinak izan behar ez direnik.

Gainera profesionaltasun maila bat eskatzen dizuete.

«Nahi dugulako aritzen gara futbolean baina horrek ez du esan nahi gure eskubideak duinak izan behar ez direnik»

Gutxieneko baldintzak behar ditugu jokalaria guztiok. Ez bakarrik Bartzelonan edo Atletico Madrilen jokatzen duten jokalariek. Guk ere gurea egiten dugu. Talde guztiok erakutsi dugu lehiatzeko gai garela. Iazko Kopan, esaterako, Sevilla heldu zen finalaurrekoetara; ligan kili-kolo ibili zen baina Kopan urrutira iritsi ziren. Neurketa guztiak oso ezberdinak dira eta horrek aberastasuna ematen dio.

Negoiazioan talde guztietako jokalaria batu zarete. Kolektibo bezala, indartu egin zarete?

Aurkariak izateaz gain lagunak gara, kideak gara, lankideak gara. Futbola futbola da eta klubak enpresak dira. Lan berdina egiten dugu eta gure artean hitz egin behar dugu. Bakoitzaren kasuak ezagutu, egoera ezberdinei nola aurre egiten dioten jakin... Baldintza hobeago edo onenetan lan egitea bilatu behar dugu. Hau oso positiboa da guztiontzat; honek esan nahi du guztiok oinarri berdina dugula.

Grebak zerikusi handia izan du aurreakordioaren lorpenean?

Bai, nik uste dut presio puntu bat sortu geniola. Ez bakarrik patronalari, baita Federazioari ere. Eskua sartu behar izan du Espainiako futbolak ezin duela horrelako irudi bat eman. Beraien erantzukizuna ere bada. Guk gure lana egin dugu eta nik uste dut ondo egin dugula. Jendea ohartu da gure egoeraz eta lagundu egin digu gertutasun hori ikusteak. Gizonezkoen taldeko kapitain eta jokalaria asko, instituzioak edo babesleak hor egon dira eta laguntzen ari dira. Poliki-poliki aurrera goaz eta espero dugu urtez urte baldintza hauek hobetzen joatea.

Aldagelan hitz egiten zen edo kanpoko eztabaida zen?

Aldageletan hitz egin dugu baina badakigu gai hauek konplexutasun handiagoa dutela eta bilera formalak egiteko hobe dela klubetik kanpo egitea. Ez ezkutaketan ibiltzeagatik, baizik eta arlo formal hori instalazioetatik kanpo egiteko. Klubaren aldetik ez dugu inolako arazorik eduki. Gure alboan egon dira eta zentzu horretan gu lasai gaude. Real oso ondo portatu da.

Aipatu dugu orokorrean urte ona izan dela: Real Kopako irabazle eta hitzarmenean aurreakordioa. Zer eskatzen diozu hurrengo urteari?

Poliki-poliki hobetzen joatea. Eskatuko nioke jokalaria guztiak osasuntsu egotea. Aurten lesio larria eduki dut, jada osaturik nago eta pozik nago zelaietara itzultzeagatik; poztasunez eta harrotasunez hartzen dugulako. Eta hori eskatzen dut. Lesioak aparte uztea, futbolearen aritza eta disfrutatzea; ahal baldin bada, txuri-urdira zale gehiago edukitzea eta Real Arena irekitzen dugun aldiro beteta egotea.

Pertsonalki, zure urterik onena izan da? Garaikurra, ligan itxura ona, Espainiako selekzioarekin Munduko Txapelketa, hitzarmena sinatzea...

Zalantzan nago. Eurokopara joan nintzen urte hartan ere oso gustura sentitu nintzen. Egia da aurten Kopako finalean asko disfrutatu nuela eta urtea berriz berezia izan dela. Ez nuke jakingo esaten pertsonalki onena izan den edo ez; hau da, nire errendimendu maila kontuan hartuta. Egia da pozik nagoela, erregulartasun maila hori erakutsi dudala eta selekzioarekin egotea oso garrantzitsua dela. Horrek esan nahi du maila ematen dudala, ondo lan egiten dudala, eta Realarekin gauzak ondo egiten ari naizela.

MARIASUN QUIÑONES GOIKOETXEA

REALEKO ATEZAINA

Realeko atearen zaindaria da Quiñones. 23 urterekin izena hartu du klubean eta sektoreko lehen hitzarmenaren borrokan aurpegia eman duenetariko bat izan da.

Ane URKIRI ANSOLA

2019

BERRI TXARRAK, SOILIK AGUR SENTIMENDU UHOLDE BATEAN

Iraia Oiarzabal

Betiko zirudien... Betirako amaitu da? Nork daki, momentuz geldialdi mugagabea egin baitu Berri Txarrak talde nafarrak. Geroak dakarrena dakarrela, hirukotearen agurrak eztanda ekarri zuen bere zale leialen artera eta musika eszenara. Belaunaldi ezberdinen soinu banda osatu du taldeak 25 urteko ibilbidean. Eteten ez den hari sendoa, musika ez ezik, sentimenduak ere transmitituz.

Berri Txarrak sentimendu bat da. Ahotsa urratzen hasteko zantzuekin baina ozen, eta hunkituta, halaxe esan zien Gorka Urbizuk azaroaren 23an Berri Txarrak talde nafarrari agur esateko Navarra Arenan bildu ziren milaka zaleei. Zinez, sentimenduak borborka zeuden azken gau hartan Iruñean. “Ikusi arte” esatea erabaki zuen hirukoteak urte bat lehenago, ziurrenik erabakiak sortuko zuen lurrikara aurreikusi gabe. Une horretan intentsitatez betetako bidaia hasi zuten Urbizuk, David Gonzalezek eta Galder Izagirrek, urteotan zehar bidelagun izan duten lantaldearekin batera.

25 urte agertoki gainean. Aise esaten da. Baina urteak ez dira alferrik pasatzen eta gelditzeko beharra sentitu zuen Urbizuk. Geldialdi mugagabea izango dela, halaxe iragarri zuen. Espero ez zuten erantzuna iritsi zen orduan eta, Urbizuk berak aitortu zuen moduan, eurenak ez diren uretan ibili dira urtebete luzean. GARARI eskainitako elkarrizketan agurrerako bideaz hausnartu zuen Urbizuk, erabakiak suposatu duen pisuaz, emozioez, nekez, estresaz... Baina agurtzeko beharrari eutsiz betiere. «Ez naiz damutzen hartutako erabakiaz. Kontziente gara oso momentu onean uzten dugula, baina uztearen arrazoietakoa bat bereziki hori da», aipatu zuen.


ARRASTOA UTZI NAHI, ETA LORTU

1994an Lekunberrin sortu zenetik milatik gora kontzertu eta kontagailuan gehitzen joan diren ki-

Beheko argazkian, Gorka Urbizu Navarra Arenan eskainitako kontzertuetako lehenengoan. Ondoko orrialdean, Urbizu, David Gonzalez eta Galdez Izagirrekin batera Kobetamendin. Idoloa ZABALETA - Aritz LOIOLA | FOKU

lometroak zeramatzan taldeak zakuan 2019an agur birari ekin zionean. Areto txiki eta handiagoetan, Kobetamendiko zelaietan, Madrilen, Katalunian, Asian, Europan, Ameriketan, eta, azkenean, Navarra Arenan. Ez zuten txokorik utzi nahi azken akorderik gabe. Azken urteetan bide oparoa zabaldu zuen hirukoteak, euskara eta rocka munduan zabalduz. Ez da lorpen makala, eta ardura ere halakoxea zen Urbizu, Izagirre eta Gonzalezentzat.

Zaleek ez dute hutsik egin erantzunarekin. Fenomeno ere bihurtu da Berri Txarrak, neurri batean. Sarrera bat esku-ratzeko ekilibrismo ariketak egin behar





izatea, leporaino betetako emanaldiak, azal tatuatuak... Irudi horiek utzi dizkigu agurrak, horrek norberarengan eragiten dituen emozio gurutzatuekin. «Sekulako esker ona dugu publikoarekiko, eta horrekin gozatzen ari gara, baina, aldi berean, kontzertu bakoitzaz gozatzeko aukera handirik gabe. Halako nahasketa bat da, pozaren eta estresaren arteko zerbait», zioen Urbizuk.

Oroitzapen on bat utzi nahi zuen hirukoteak eta erronkak geroz eta handiago zirudien sortutako eztanda ikusita. Apustua ere handitu behar izan zuten, emanaldi berriak iragarritz, Navarra Arenako azken emanaldia bikoiztuz... Publikoak aseezina zirudien une askotan. Uztailaren 14an Kobetamendin emandako kontzertua izan zen iragarpen berezieta-ko lehena. 20.000 lagun baino gehiago elkartu ziren sorpresaz eta gonbidatuz beteriko kontzertuan.

Jaialdi handietan batutako jendetza lortutakoaren adierazle bat da, baina Berri Txarrak ibilbideak horma ugari hautsi ditu. Hizkuntzarena agerienetako da. Euskarazko rocka egiten pasa du taldeak mende laurden eta, inork kon-

trakoa pentsatu zezakeen arren, errealtateak erakutsi du kalitatezko musika eskaintzea eta arrakasta euskaraz ere lortu daitezkeela. Euskal Herri-kanpo emandako kontzertuek demostratzen dute. Muga fisikoak ere gainditu baitituzte.

Ezaguna da Nantesen pertsona baka-rraren aurrean jo zuteneko pasadizoa. Kariño- gortetako oroitzapena da hiru- kotearentzat eta, segur aski, baita eman-aldia eskusiban gozatu ahal izan zuen harentzat ere. Azken urte honetan Eus- kal Herri-kanpo eskainitako kontzer- tuei errepaso bat egingo bagenie ez ge- nuke Nantesekoa bezalako estanparik topatuko. Izan Bartzelonan, Madrilen, Parisen, Berlinen, Tokion, Mexikon edo San Frantziskon zaleak erakarri dituzte. Sarri Euskal Herri-kanpo joandakoak edo atzerrian bizi diren euskal herritar- rak, bai, baina baita tokian tokikoak ere. Zenbat katalanek, madrildarrek edo frantsesek jakingo ote dituzte hirukote nafarraren letrak buruz?

«Zabaltzen joan izan gara, eta konple- xu eta aurreiritziei aurre egiten; zeren nahiko zurruna da musikaren mun-

dua», hausnarketa hori utzi zuen Urbi- zuk GARAn egindako ibilbide oparoaz eta taldearen bilakaeraz galdetuta. Jaio. Musika. Hil. Bizitzaren zikloa talde na- farraren hitzetan idatzia. Horren kon- plikatua eta horren sinplea.

«NIK ZEROTIK HASI NAHI NUEN»

Bada, lurrikara guztia pasata, soilik agur. Berri Txarrak joan da. Ziklo bati amaiera eman beste batean «zerotik hasteko» au- kera izateko. Bidaia horretan, euren kan- tuek utzitako aztarnak geratzen dira mila- ka pertsonaren arimetan iltzatuta. Beti izan dira trebeak bihotzak josten. Navarra Arenako azkenengo kontzertuan elkartu- tako 11.000 lagunek mimoz gordeko dute memorian han bizitakoa. Nahiz eta egiaz, azken urtean batetik bestera jarraitu di- tuen orok izango duen bere oroitzapenen kutxan «azken kontzertua».

Itsasoa baretu da. Zerbaiten amaiera bi- zi izanaren sentsazioa hor geratzen da. Be- rri Txarrak sentimenduak, ordea, gure imajinario kolektiboan bizirik dirau. Eta etorriko dira, ziur, bidaia berriak. Nola igarri orduan iragan hau guztia betiko izango genuela aurretik.



Awlad, Hesiak gainditu” dokumentala estreinatu berri du Ane Irazabal kazetariak Cosimo Caridirekin batera. Protagonistak lau ume dira eta istorio bakoitza herrialde batean kokatuta dago, errefuxiatuen ihesaldiaren etapa desberdinak islatu nahian: Berlin, Samos uhartea (Grezia), Jordaniako Zaatari kanpalekua eta Oñati. Haur errefuxiatuen eskolaratzearen inguruko hausnarketa egiten du dokumentalak. GAUR8 Irazabalekin mintzatu da errefuxiatuen dramaren inguruan. Dokumentalak izandako harre rarekin pozik da Arrasateko kazetaria eta lotsagarritzat jotzen du bai Europak errefuxiatuekin duen jarrera bai aferari heldutasunez heltzeko agertzen duen borondate politiko eza.

Nola sortu zen dokumentala?

Iazko urrian, Lesbosen geundela, bururatu zitzaigun. Moirako kanpalekuan konturatu ginen herrialde desberdinetako haurrek beraien artean turkieraz hitz egiten zutela. Turkian egon ziren denboran, eskolatuak zeuden, baina, behin Greziara iritsita, hilabeteak pasa zituzten eskolara joan gabe. Eskolara ez joateak zer-nolako ondorioak di-

ANE IRAZABAL

KAZETARIA

Palestinan hasi zuen bere ibilbidea Ane Irazabal kazetariak. Ekialde Hurbilean lan egin ostean, egun errefuxiatuen drama eta migrazio fenomenok jarraitzen ditu.

Ainara Lertxundi

«Hau jada ez da larrialdi egoera bat, kronikoa bihurtu den drama da errefuxiatuena»

tuen aztertzen hasi ginen. Politena dokumental bat egitea izan zitekeela pentsatu genuen. Lau epetan garatzen diren lau istorio aukeratu genituen.

Nola lortu zenuten umeekin lan egiteko aukera?

Familiei oso ondo azaldu genien nortzuk ginen, zertara gindoa zen, zein zen proiektuaren funtsa. Denbora guztian galdetzen ziguten ea Netflix edo Youtubekoak ginen; ez zekiten zer zen dokumental bat ere. Oso zintzoak izan ginen haiekin. Ez genuen malko errazik nahi. Egun batzuetan beraien bizitzan oso presente egongo ginela azaldu genien, gauza ez zela pare bat galdera egin eta joatea. Hasierako unetik informazio guztia mahai gainean jartzen denean, ondo ulertzen dute. Egia da da hasieran zaila egin zitzaizela bideo kameretara ohitzea eta naturaltasunez jokatzeko. Baina, hirugarren egunetik aurrera, ohitu egin ziren eta gu dekoratu hutsa ginen. Berlinean dagoen Siriako familiak albiste txar bat jaso zuen gu bertan geundela. Misil batek izebaren etxea jo eta izeba hil egin zela esan zioten amari. Azken bi egunetan ez zegoen ezertarako eta hala esan zigun. Jordanian, kanpalekuan grabatu genuen denbora guztian bi polizia eta polizia sekretu bat zeuden gurekin. Kazetariak zertara doazen eta zer grabatu nahi duten kontrolatu nahi dute. Hasieran ez zen oso eroso grabaketak haiekin egitea. Gainera, egunero aldatzen zituzten. Gure lana ikusita, pixkanaka tarte gehiago ematen hasi ziren. Etxera grabatzera joaten ginenean, kanpoan gelditzen ziren. Hori hartu-eman zail baten emaitza izan zen.

Zer-nolako ondorioak ditu eskolara ez joateak?

Lotsagarria da Europaren biho-
tzean milaka umek eskolara joa-
teko aukerarik ez izatea ihesla-
riak direlako. Oso herrialde
gutxi egiten ari dira ahalegin
hori. Errefuxiatuen dramari la-
rrialdi egoera bati emango lio-
keen tratamendu berbera eman
dio Europak. Zer behar da? Arro-
pa, berokiak, jatekoa... baina ez
dago benetako inbertsiorik. Hau
da, ez da kontuan hartzen erre-
fuxiatu horietako asko European
geldituko direla eta gure etorki-
zuneko bizilagunak izango dire-
la. Ez badakite ez idazten ez ira-
kurtzen, ez badituzte ezagutzen
bizi diren gizarteko ohiturak eta
kode sozialak, hemendik 30 ur-
tera kanpalekuetan dauden
ume asko belaunaldi galdua
izango dira. Europaren aldetik
ez dago borondaterik gai honi
heldutasunez eusteko. Hau jada
ez da larrialdi egoera bat, kroni-
koa bihurtu den drama bat da,
baina Europak ez du hala aitor-
tu nahi. Lotsagarria da Grezia
eta Turkiako mugan duela gutxi
sei pertsona hotzez hil izana.

**Zein izan da egin duzun lanik
gogorrena?**

Gazaren kontrako 2014ko eraso-
aldia benetan gogorra izan zen.
Kontraesan izugarriak sortzen
dizkizu sarraski hori hurbiletik
bizitzeak jakinda atzerriko kaze-
taria izateagatik nolabaiteko ba-
besa duzula. Oso gogoan dut ere
Idomenin gertatutakoa. Hilabe-
te eta erdiz egon ginen Grezia
eta Mazedonia arteko mugan.
Haien etsipena edo Mediterra-
neoan hiltzen ari diren izen ga-
beko etorkinei buruz berri ema-
tea ere gogorra da. Errealitate
horiek zure barruko kutxan gel-
ditzen dira.

**Idomeni aipatu duzu. Muga le-
gez kanpo gurutzatzea lepora-
tuta, atxilotu egin zintuzten.
Nola bizi izan zenuen?**



Argazkiak: GAUR8

Gazan bezala, barne kontraesa-
nak eragin zizkidan. Jakin bage-
nekien kazetari eta nazioarteko
ekintzaileak atxilotzea disuasio
metodo bat zela arreta guztia
gugan egoteko, eta, egia esan,
ondo atera zitzaien.

**Badirudi hildakoen kopurua
altua ez bada, komunikabideen
arreta lortzea ezinezkoa dela.
Hiltzen diren etorkinak zifra
huts bihurtu dira.**

Bai, hala da. Italian, adibidez,
izugarritzko ahalegina egiten ari
dira identifikatu gabeko ihesla-
riei izena jartzeko. Argi dago on-
tzi batean 70 turista hondora-
tzen badira, horien gorpuak
erreskatatzeko izugarritzko aha-
leginak egingo direla. Ez da gau-
za bera gertatzen migratzailee-
kin. Gobernu eta erakunde-
aldetik ez da ahaleginik egiten
itsasoak irentsitako pertsonok
aurkitu eta identifikatzeko. Gi-
zartean, ordea, pertsonok iden-
tifikatzeko saiakera handia egi-
ten ari dira ekintzaileak, tartean
kazetariak eta Cristina Cattaneo
bezalako auzitegi medikua.



*«Ez badakite ez
idazten ez
irakurtzen, ez
badituzte ezagutzen
bizi diren gizarteko
ohiturak eta kode
sozialak, hemendik
30 urtera
kanpalekuetan
dauden ume asko
belaunaldi galdua
izango dira»*

Zer espero daiteke 2020an?

2019an bezala jarraituko dugu,
ezikusiarena egiten. Ikusi behar-
ko dugu zer egiten duen Recep
Tayyip Erdogan presidente tur-
kiarrak, behin eta berriz egiten
baitu mehatxu hondartzak eta
mugak zabaltzearekin.

**Iheslariena tresna geopolitiko
bihurtu da, ezta?**

Eskuin muturrak oso ondo jakin
du drama hau kapitalizatzen eta
migratzaileei Europaren arazo
guztiak leporatzen. Talde politi-
ko tradizionalak, sozialdemo-
krazia eta eskuin tradizionala,
ez dira gai izan diskurtso horri
aurre egiteko. Ultraeskuinaren
gorakada gelditzeko bere egin
dute diskurtso hori, baina, origi-
nalaren eta kopiaren artean,
jendeak beti du nahiago origina-
la. Italian oso argi ikusi da. Etxe-
ko lanak egiteko prest dagoen
kazetaririk ez dagoenez, edo ul-
traeskuinaren diskurtsoari hel-
dutasunez aurre egiteko politi-
karirik ez dagoenez, ikusten ari
gara hedabideak publizitatea
egiteko erabiltzen ari direla.



Zortzi euskal artistak #ExpolioGARari aurre egiteko espresuki egin dituzten zortzi artelan

Artistek beraiek zenbakitu eta sinatutako serigrafiak / Egiatzotasun ziurtagiria / Edizio mugatuak / Neurriak: 40 x 50 cm
Bi (500€), hiru (800€) edo bost (1.500€) aletako sortetan / Etxera bidalketa

Zumeta, Lekue, Lazkano, Salazar, Jauregi, Gorriti, Etxebarria, Sistiaga

ERRESERBAK, INFORMAZIOA ETA KATALOGOA:



arteagara.naiz.eus // denda.naiz.eus



943.50.60.10



arteagara@naiz.eus

